

Bizitzaren prekarizazioa ere areagotu da, lan baldintzen prekarizazioaz gain, bizi espektatiben gainbehera eta bizitza bizigarriak izateko helduleku faltak ditugu. Ez dauzkagu gaitasunik gure buruen gaineko erabakiak hartzeko eta hau gutxi balitz, kriminalizatuak izaten jarraitzen dugu, eta ikaragarritzko kontrol soziala jasaten dugu, hainbat arlotatik: komunikabideak, familia, hezkuntza sistema...

Guzti honetaz gain, Neska* Ikasleok ere gure hezkuntza prozesuak nola prekarizatzen diren ikusi dugu, izan baliabide faltagatik, zaintza lanak egitearren denborarik ez dugulako, etab. Hezkuntza sistema, sistema heteropatriarkala erreproduzitzeko tresna indartsua da eta beraz, gizartean ematen diren egoerak gertatzen dira; eraso sexistak, edukietan emakumeen* presentzia ez egotea...

Lehen aipatu bezala, biolentzia matxista guzti hauek, etengabe erasotzen gaituen sistema patriarkal kapitalistan dute erroa. Baina sistema hau eusten eta horretatik izugarritzko etekina ateratzen duten erantzule konkrituak badaude ere. Hauek burgesiaren parte diren, multinazional handietako enpresariak, mandatariak, banketxeetako jabeak... dira.

Gaurkoan, instituzioen jarrera salatu nahiko genuke, egoera guzti hauez jakitun, neurri eraginkorrak proposatu beharrean, aurpegi garbiketa nahiago izan dutenak. Honen adierazle dira txapa morea soinean jarri duten udaletxe eta politikari guztiak.

Guk argi daukagu, zapaltzen gaituen sistema heteropatriarkal kapitalista suntsitu arte borrokatuko dugula eta horretarako gure arma autodefentsa feminista izango da. Beraz, beharrezkoa da neska* gazteok gure artean saretzea, antolatzea eta kaleak hartzea! Borroka feministaz deserosotasuna sortzeko, espazioak hartzeko, desnormalizatzeko eta etengabeko talkan egoteko garaia da!

Bizitzak kolapsatzen dituzten biolentziei, autodefentsa feminista!

Gora borroka feminista!

EUSKAL HERRIKO NESKA* GAZTEAK